



OLENTZERO JOAN ZAIGU

Olentzero joan zaigu mendira lanera
Intentzioarekin ikatza egitera
Aditu duenian Jesus jaio dala
Lasterka etorri da berri ematera.

Horra horra, gure Olentzero,
Pipa hortzetan duela eserita dago,
Kapoiak ere baditu arraultzatxoekin
Bihar meriendatzeko botila ardoakin
Botila ardoakin.

Soinu jo ta dantzan dabil pozik jendea
Bidean erori zaigu artzai-andrea,
Hauxe da nekea horrela ibiltzea,
Saskia erori zaigu kapoiz betea.

Espartinak urratuta zapatarik ez,
Hernion gelditu nintzen oineko minez,
Hauxe da nekea horrela ibiltzea,
Hiru txiki ardorekin librako ogia.



HATOR HATOR

Hator hator mutil etxera
Gaztaina ximelak jatera
Gabon gaua ospatutzeko
Aitaren ta amaren ondoan
Ikusiko dek aita parrezka
Amaren poz atseginez

Eragiok mutil aurreko danbolinari

Gaztainak erre artian
gaztainak erre artian
txipli txapla pun
gabon gaua pozik igaro dezagun
(Bi aldiz)



OLENTZEROREN OPARIA

Astoa gaixo dago, Olentzero tristerik
Txabola ikatzez beterik,
pilan-pilan udazkenetik
Ez dauka txabola uzterik,
ez etxez etxe ibiltzerik

**Horra Olentzero pipa hortzetan
Gauetz ibiltzen da negu hortzetan**

Larri daude auzoan, ikatzik ez neguan
Han egongo da Olentzero,
suaren ondoan txit bero
Noiz jeitsiko da txabolatik,
galdetzen du Joxepantonik

Horra Olentzero pipa hortzetan ...

Bi lagun joan dira, elurretan mendira
Aizu Olentzero zergatik
ez duzu ekartzen ikatzik?
Ezin dut ikatzik banatu
mesedez astoa sendatu

Horra Olentzero pipa hortzetan ...

Arrantzaka astoa, sendatu da gaixoa
Eskerrik asko amonari, eta bere kataplastamari
Geroztik gure Olentzero, herrira jeisten da
urtero

Horra Olentzero pipa hortzetan ... Bi aldiz

ETXE HONETAN

Berriro elkartuko gara
sutondoan denok batera
Olentzero noiz dator hona?
txikien betiko galdera

**Gabon gauean elkartuta
senide, herritar, lagunak
etxe honetan sartzen dana
etxekotzat hartuko da**

(Bi aldiz)

Etorri gurekin kantara
Olentzeroren harrerara
Zenbat ilusio, dardara...
Ta gauean goxo lotara

Gabon gauean elkartuta

..... (Bi aldiz)

Maitasunezko oparia
Denontzat ongi etorria
Sartuko den urte berria
Baietz izan zoragarria!

Gabon gauean elkartuta

..... (Bi aldiz)

hazi,
hezi,
bizi



URRUNDIK

Laino artetik eguzki printzen bizia
Abenduko gau hotzetan bihotz beroa
Pakea eta maitasun bide sendoa
Bizi dezagun alaitasunez jantzia, jantzia

Zure irri eztaa...

Itxaropen argia, argia

Gabon jai hauetakoo...

Izar dirdir berria

(Dena 2 aldiz)

AI HAU GAUAREN

Ai hau gauaren zoragarria
Jesus jaio da Belenen
Herririk herri bila gabiltza
Bila gabiltza beraren

(Bi aldiz)

Aingeruak kanta
artzai onak dantza
Guztiok alabantza

zuri zor dizugu

Astoak A! Idiak Mu!

Atseginik badegu

Hartu makilak eta jantzi abarkak
Artzaiak joan ziraden Jesusen bila
Ai zer atsegina den dantzan jende guztia
Salto brinko egirik denak joan ziren

MENDI ALDETIK DATOZ

La lara la la la la...

Mendi aldetik datoz artzaiak artzaiak
Bildots bana harturik bizkar gainean

Gabon gauean kanta,
kanta aleluia kanta aleluia
aleluia gabon gauean kanta
kanta aleluia gauean

La lara la la la la...

Haur txiki bat jaio da Belenen Belenen
Guztion jainkoa da poztu gaitezen

Gabon gauean kanta,
kanta aleluia kanta aleluia
aleluia gabon gauean kanta
kanta aleluia gauean

La lara la la la la...



